

LANAREN EKONOMIA IKASTAROA Autoebaluaziorako galdetegiak

OTAZUA GARMENDIA, GARIKOITZ

1. GAIKO AUTOEBALUAZIOA

1. Lan Ekonomian, lan merkatua aztertzeari buruz hitz egiten denean, hau aipatu nahi da:
 - a. Lan ordaindu gabea bakarrik
 - b. Lan ordaindua eta ordaindu gabea
 - c. Lan ordaindua bakarrik
 - d. Lan ordaindu gabea, hau da, enplegua
2. Esaten dugunean lana ez dela homogenea, hau aipatu nahi dugu:
 - a. Merkataritza izaerako lana eta merkataritza izaerarik gabea
 - b. Langileen jarrerak, gaitasunak eta prestakuntza
 - c. Eskaintzaren eta eskariaren arteko desorekak
 - d. Alderdi instituzionalek lan eskaintzan duten eragina
3. Lan eskaintza globala handituz doa:
 - a. Soldata igotzen bada, gero eta pertsona gehiago daudelako lan egiteko prest
 - b. Soldatak igotzen badira, kolektibo batzuk biztanleria aktibotik atera daitezkeelako
 - c. Soldata jaisten bada, pertsonak lan gehiago egin behar dutelako
 - d. Pertsonen errenta handitu ahala, aisialdirako denbora gehiago nahi dutelako, hau da, lan gutxiago egin nahi dutelako
4. Langabezia subsidioak kobratzeko aukerak:
 - a. Pertsona guztien lan pizgarriak murriztea eragiten du
 - b. Eragina du lan eskarian, baina ez, ordea, eskaintzan
 - c. Lan eskaintza baldintzatu dezake, zenbatekoaren arabera
 - d. Inoiz ez du eraginik langabeen enplegu bilaketan
5. Giza kapitalaren teoriak:
 - a. Hezkuntzan egindako inbertsioaren eta produktibitatearen arteko erlazioak azaltzen ditu
 - b. Soldaten arteko aldeak azaltzen ditu
 - c. Ez du kontuan hartzen gizarte inguruabarrek zer eragin duten heziketan inbertitzeko erabakietan
 - d. Aurreko guztiak
6. Ekonomia baten baitan, lan eskaria:
 - a. Handiagoa izango da, ekonomiak bilakaera ona izateko itxaropena badago
 - b. Zuzenki erlazionatuta dago soldatarekin
 - c. Enpresa pribatuetatik bakarrik dator
 - d. Aurrekoetatik bat bera ere ez
7. Soldata lan pizgarria dela esaten dugunean, adierazi nahi dugu:
 - a. Soldata altuek ekonomiaren eskaria bultzatzen dutela
 - b. Soldataren eta produktibitatearen arteko harremana
 - c. Soldata produkzio kostu bat dela
 - d. Soldata malgutasuna behar dela lan merkatua orekatzeko
8. Lan merkatuko erakundeak
 - a. Konponbide iraunkorrak dira
 - b. Berdinak dira ekonomia guztietan
 - c. Gatazkak konpontzen jarduten dira

- d. Ez dira aldatzen krisiak gorabehera

2. GAIKO AUTOEBALUAZIOA

1. Langabeziako erregistroetako (SPEE - Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa, Lanbide) datuak
 - a. Inkestetatik datoz
 - b. Haietan ez da biztanleria aktiboa kontuan hartzen
 - c. Gizarte Segurantzakoen antzekoak dira
 - d. Baliagarriak dira nazioarteko langabezia datuak konparatzeko
2. Ekonomia batean, biztanleria potentzialki aktiboa (16 urtetik gorako pertsonak) 15 milioi pertsonak osatzen dute. 3 milioi pertsona daude langabezian eta 8 milioi lanean ari dira:
 - a. Beraz, 4 milioi pertsona ez-aktibo daude
 - b. Biztanleria aktiboa 11 milioi pertsonak osatzen dute
 - c. Biztanleria aktiboa 8 milioi pertsonak osatzen dute
 - d. Aurrekoetatik bat bera ere ez
3. Soldatapekotze tasa:
 - a. Zenbat langile autonomo dauden adierazten digu
 - b. Soldatapeko langileen ehunekoa da, langileen guztizkoarekin alderatuta
 - c. Soldatapeko langileen ehunekoa da, biztanleria aktiboarekin alderatuta
 - d. Norberaren konturako langileen ehunekoa da, langileen guztizkoarekin alderatuta
4. Ekonomia batean 35 milioi pertsona ari dira lanean eta 3 milioi daude langabezian. Beraz:
 - a. Langabezia tasa %8,5 da
 - b. Enplegu tasa %8,7 da
 - c. Langabezia tasa %7,5 da
 - d. Aurrekoetatik bat bera ere ez
5. Ekonomia batean 20 milioi pertsona ari ziren lanean baina, krisiaren ostean, 17 milioi ari dira. Beraz, esan dezakegu:
 - a. 3 milioi pertsona daudela langabezian
 - b. Enplegu maila %17,6 jaitsi dela
 - c. 3 milioi biztanle aktibo gutxiago daudela
 - d. Jarduera tasa %85 dela

3. GAIKO AUTOEBALUAZIOA

1. Ikuspegi neoklasikotik, lanerako indarra homogeneoa da. Beraz:
 - a. Langile guztiek prestakuntza maila antzekoa eta nahikoa dute, edozein lanpostutan aritzeko.
 - b. Produkzio sistemako lanpostu guztietako prestakuntza eskakizunak antzekoak dira.
 - c. a eta b.
 - d. Aurrekoetatik bat bera ere ez.

2. Eredu neoklasikoaren arabera, lan merkatuan gehiegizko eskaintza badago arrazoi hauengatik da:
 - a. Soldata lan faktorearen produktibitatea baino handiagoa delako.
 - b. Soldata lan faktorearen produktibitatea baino txikiagoa delako.
 - c. Soldata oreka soldata baino txikiagoa delako.
 - d. b eta c.
3. Ikuspegi neoklasikoaren arabera, langabeziak bere horretan badirau:
 - a. Lan merkatuaren funtzionamenduan kanpotik datozen esku-hartzeak eragiten dutelako da.
 - b. Soldatek beheranzko zurruntasuna dutelako da.
 - c. Sindikatuak eta lan merkatua erregulatzen duten beste erakunde batzuk daudelako da.
 - d. Aurreko guztiak.
4. Ikuspegi keynestarraren arabera, langabeziaren arrazoia da:
 - a. Ondasunen eta zerbitzuen eskari globala ez dela nahikoa.
 - b. Lanaren mugikortasuna eta soldaten erabateko malgutasuna.
 - c. Eskaintza eta eskaria prezioen bidez egokitzen direla.
 - d. Eragileen planak betetzen direla, erabakiak ziurgabetasun testuinguru batean hartzen dituzten arren.
5. Ikuspegi neoklasikoan ez bezala, keynestarraren arabera:
 - a. Eskaria jaisten bada, soldatak jaitzita langile gehiago kontratatzea bultzatu daiteke.
 - b. Soldatak malguak dira, beherantz.
 - c. Eskaria jaisten bada, merkatuak ez du inolako mekanismorik langabezia jaisteko.
 - d. a eta c.
6. Ikuspegi marxistaren arabera, langabeziaren jatorria da:
 - a. Klase arteko borroka, langileek soldata igoerak eskatzen badituzte enpresariak langileak aurrezteko teknologiak erabiltzen baitituzte.
 - b. Produkzio sistema kapitalistaren aldirian behingo krisiak, langile klasea ahuldu eta enpresari klasea indartzeko mekanismo gisa.
 - c. a eta b.
 - d. Aurrekoetatik bat bera ere ez.
7. Ikuspegi instituzionalistaren arabera:
 - a. Lan merkatua ez da ez homogeneoa, ez lehiakorra, ez bakarra.
 - b. Lan merkatuaren baitan, elkarren artean lehiatzen diren azpi-merkatuak daude.
 - c. Soldatak lanbide eta lanpostu bakoitzaren garrantziaren arabera dira, eta baita gizarte bat definitzen duten botere erlazioen edo justizia sozialeko arauen arabera ere.
 - d. a eta c.
8. Lan merkatuen dualismoaren eta segmentazioaren teoriak adierazten duenez:
 - a. Segmentu primarioan langileen soldata maila baxua da, ia ez dago lanbide sustapenerako aukerarik, lanpostuak oso ezegonkorak dira eta langileak asko txandakatzen dira.

- b. Kanporatze, deslokalizazio eta azpikontratazio prozesuek enpresa handien dualismoa hedatzen dute, gero eta enpresa txiki gehiagoren gainean finkatuta.
- c. Lan eskaintzaren eta eskariaren indarrek garrantzi handia dute, eta aldaketa tekniko eta konplexutasun teknologikoa bigarren mailan gelditzen dira.
- d. a eta b.

4. GAIKO AUTOEBALUAZIOA

1. Soldataren zurruntasuna beherantz
 - a. Desagertzen da sindikatuak desagertzen badira
 - b. Mesedegarria da langabeentzat, eta kaltegarria lanean ari direnentzat
 - c. Ez da eraginkorra enpresetarako
 - d. Hitzarmen kolektiboekin erlazionatuta dago
2. Laneko produktibitatea
 - a. Produkzio prozesuan erabilitako talde kapitalaren mende dago
 - b. Langile kopurua igotzearekin batera areagotzen da
 - c. Areagotzen da produkzioa areagotzen bada
 - d. Aurreko guztiak
3. Enpresaren lehiakortasunari bultzada eman diezaioke:
 - a. Laneko kostu unitarioak igotzeak
 - b. Produktibitatea areagotzeak
 - c. Prezioak igotzeak
 - d. Laneko kostuak produkzioaren araberakoak izateak
4. Soldatak birprodukzioaren oinarri direla esaten dugunean, adierazi nahi dugu:
 - a. Eskarian eragina dutela
 - b. Bizi mailarekin lotuta daudela
 - c. Enpresa kostuetan eragina dutela
 - d. Produkzio faktore baten ordaina direla
5. Negoziazio kolektiboa zentralizatua da baldin eta:
 - a. Negoziazio mahai bakarra badago
 - b. Enpresa mailan gauzatzen bada
 - c. Hitzarmenen arteko koordinazio mekanismoak badaude
 - d. Estaldura langile guztientzat bada
6. Negoziazio kolektibo deszentralizatuko sistema batean:
 - a. Soldaten bilakaera makroekonomiaren egoerari egokitzen zaio
 - b. Soldata aukera estua da
 - c. Transakzio kostuak handiak izan daitezke
 - d. Soldaten bilakaera inflazioari egokitzen zaio
7. Espainiako negoziazio kolektiborako sistema:
 - a. Zentralizatoranzko joera du
 - b. Bitartekoa da, ez zentralizatua, ez deszentralizatua
 - c. Hitzarmenen ultra-jarduerak lan baldintzak bermatzen ditu
 - d. Aurreko guztiak
8. Hitzarmena ez betetzeak:

- a. Lan baldintzak malgutzea eragiten du
- b. Enpresako hitzarmena sektorialaren gainetik jartzen du
- c. Enpresako soldatak sektoreko soldata orokorretara egokitzen ditu
- d. Praktikan, negoziazio kolektiboa zentralizatzea eragiten du

5. GAIKO AUTOEBALUAZIOA

1. Lan bitartekaritzarako sistemak hobetzea eraginkorra da:
 - a. Egiturazko langabezia jaisteko
 - b. Langabezia frikzionala jaisteko
 - c. Langabezia keynestarra jaisteko
 - d. Langabezia teknologikoa jaisteko
2. Eskariaren jaitsierak eragindako krisi ekonomiko baten aurrean, egokia da:
 - a. Gastu publikoa bultzatzeko politikak ezartzea
 - b. Interes tasak jaitea
 - c. Kontratazko pizgarri fiskalak eskaintzea
 - d. Aurreko guztiak
3. Lan jardunaldia murrizteko politikek:
 - a. Eskaria bultza dezakete
 - b. Iraupen luzeko langabezia murrizten lagundu dezakete
 - c. Langabeen prestakuntza teknologiaren aldatetara egokitzen lagundu dezakete
 - d. Aurreko guztiak
4. Langileak trebatzeko eta birziklatzeko politikak lagungarriak dira:
 - a. Egiturazko langabezia jaisteko
 - b. Demografia gorabeherak eragindako langabezia jaisteko
 - c. Eskariaren jaitsierak eragindako langabezia jaisteko
 - d. Aurreko guztiak
5. Soldatak jaisten badira:
 - a. Kontratazioa bultzatu daiteke, lan kostua handitzen delako
 - b. Kontsumoa jaitsi daiteke
 - c. Inflazioaren espirala indartu daiteke
 - d. Aurreko guztiak
6. Enplegua bultzatzeko gastu publikoa handitzen bada:
 - a. Joera liberaleko politika bat da
 - b. Soldatak igotzeko itxaropena sortzen da
 - c. Kasu horretan nahitaezkoa da zergak igotzea
 - d. Aurrekoetatik bat bera ere ez
7. Phillips-en kurbak, langabeziaren eta inflazioaren arteko alderantzizko erlazioa adierazten duenak:
 - a. Lan merkatua malgutzeko beharra justifikatzen du
 - b. Ez du balio estagflazio fenomenoak deskribatzeko
 - c. Prezioak igotzen badira, langabezia ere igo egingo dela esan nahi du
 - d. Politika ekonomikoaren diseinua inspiratu zuen 1980az geroztik
8. Laneko instituzioen zurruntasunaz eta langabeziarekin duten erlazioaz mintzatzen garenean:

- a. Batez ere AEBekin du zerikusia
- b. NAIRU kalkulatzeko zailtasunekin du zerikusia
- c. Negoziazio kolektiborako sistemekin nahiz kaleratzeen kontrako babesarekin izan dezake zerikusia
- d. Europako ekonomia guztien lan errealitatea azaltzen du

6. GAIKO AUTOEBALUAZIOA

1. Gobernuaren aurrekontu politikak osagai hauek ditu:
 - a. Aurrekontu publikoen bidez egindako gastuak
 - b. Bildutako dirua eta nola erabiltzen den jarduera eta enplegua sortzeko
 - c. Errentaren birbanaketa eta jarduera ekonomikoen fiskalizazioa
 - d. b eta c
2. Krisiaren gestio neoliberalaren aurrean, ekonomista keynestarrek proposatzen dute:
 - a. Zergak jaitsita inbertsioa eta enplegua sortuko direla
 - b. Lan harremanak malgutzea
 - c. Inbertsioa bultzatzea, ekonomia suspertzeko
 - d. Politika aktiboak egitea eta beharrezkoak ez diren gastuak gutxitzea
3. Kapitalismoan, soldata desoreka da:
 - a. Errentaren desoreka baino txikiagoa
 - b. Pertsona bakoitzak lanean duen banakako merituen emaitza
 - c. Klase sozialarekin zerikusirik ez duen gaia
 - d. Laguntza sozialen faltaren emaitza
4. Emakumeen lan diskriminazioa:
 - a. Berdin gertatzen da enpresetako maila guztietan
 - b. Heziketa maila txikia dutenengan bakarrik du eragina
 - c. Ez da konpontzen "lan beragatik, soldata bera" araua aplikatuta
 - d. Enpresetan berdintasun planak ezarrita konpontzen da
5. Enplegu pribatua sustatzeko diru-laguntzak:
 - a. Kolektibo espezifikoek eman beharko litzaizkieke, inoiz ez orokorrean
 - b. Ez dute enplegurik sortzen, postu horien beharrik ez badago
 - c. Lanpostu gehiago sortzea eragiten dute, enplegua merkeagoa delako
 - d. Kapitalaren marjinak hobetzen dituzte eta, beraz, baita enplegua ere
6. Mota guztietako langabezia subsidioak:
 - a. Lanera bueltatzeko motibazioa kentzen dute eta hobe da neurrian erabiltzea
 - b. Lanik gabe dauden edo lan egiteko gaitasunik ez duten pertsonen ematen zaizkie
 - c. Langabezia ez igotzen laguntzen duten neurri antizikliko bat dira
 - d. Bizi baldintzak pobrezia atalasetik gora mantentzen laguntzen dute
7. Azkenaldian ezartzen ari diren lan malgutasunerako politikak:

- a. Enpresa mailan ematen dira, lana antolatzeko eran
 - b. Enpresaren onerako dira, lanaren erabilera optimizatzeko
 - c. Enpresei erraztasunak ematen zaizkienez, gehiago kontratatzen dute
 - d. Enplegua bultzatzen dute eta arazo sozialak konpontzen laguntzen dute
8. Lan jardunaldia orokorrean murriztea justifikatuta dago arrazoi hauengatik:
- a. Lan jardunaldia murriztearen aldeko borrokaren helburua enplegua banatzea izan da beti
 - b. Beharrezkoa da. Eta baita bideragarria ere kostuak langileen, enpresarien eta administrazioen artean banatzen badira
 - c. Lanpostuak hobeto banatuta, enplegua sor dezakeen neurri bat da
 - d. Lana berrantolatzen eta produktibitatea areagotzen lagundu diezaieke enpresei

1. GAIKO AUTOEBALUAZIOAREN ERANTZUNAK

1. C
2. B
3. A
4. C
5. D
6. A
7. B
8. C

2. GAIKO AUTOEBALUAZIOAREN ERANTZUNAK

1. B
2. B
3. B
4. C
5. B

3. GAIKO AUTOEBALUAZIOAREN ERANTZUNAK

1. A
2. A
3. D
4. A
5. C
6. C
7. D
8. B

4. GAIKO AUTOEBALUAZIOAREN ERANTZUNAK

1. D
2. A
3. B
4. B
5. A
6. C
7. B
8. A

5. GAIKO AUTOEBALUAZIOAREN ERANTZUNAK

1. B
2. D
3. B
4. A
5. B
6. B
7. B
8. C

6. GAIKO AUTOEBALUAZIOAREN ERANTZUNAK

1. D
2. C
3. A
4. C
5. B
6. C
7. B
8. C

